



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 29a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2024. urterako ordutegi ofiziala. (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2024. urterako ordutegi ofiziala.

Kontuen Ganberako langileek 2024an izanen duten lan-egutegia onetsi baita, bidezkoa da Erregistro Orokorraren 2024rako ordutegi ofiziala zehaztea, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzearen ondorioetarako.

Nire eskumenak baliatuta, lehendakaria naizen honek EBATZI DUT:

Lehena. Ezartzea ezen Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2024rako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztu ahal izateko, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera. Halaber, gogorarazi nahi dut erakunde honek Erregistro Orokor Elektronikoa ere baduela Egoitza Elektronikoaren barruan, zeinetara webgunearen bidez sar baitaiteke.

Bigarrena. Ezartzea, dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbat, igande eta Nafarroako Foru Komunitaterako oro har ezarritako jaiegunetan, bai eta uztaillaren 8, 9, 10, 11 eta 12an (lanekoak ez diren egunak, Sanferminak direla-eta), uztaillaren 26an, abuztuaren 16an, azaroaren 29an (San Saturnino jaieguna) eta abenduaren 2, 24 eta 31n ere, egun horiek balio-gabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador
